



Chernobilen Lagunak osatzen duten familia bolondresek helburu bat daukate: Chernobilgo zentral nuklearrean (Ukraina) 1986an izandako istripuagatik kaltetuak izan diren adingabeen osasuna hobetzen laguntzea. Chernobildik 50 Km baino gutxiagora dagoen eremuan, familiekin bizi diren 7 eta 17 urte bitarteko adingabeentzako aldi baterako zaintza-programa antolatzen dute urtero Ivankiveko(Ukrainia) Doviria komunitarearen garapenerako gizarte zentroarekin elkarlanean.

11 CHERNOBILEN LAGUNAK Elkartearekin solasean:

-Zenbat gozatzen dugun uda Euskal Herrian, ezta? Distantzia txikian gauza denetarik daukagu eta... zuek, zer egiten duzue udan?

-Mendira joan, igerilekuan ibili, lagunekin jolastu... denetarik egiten dugu. Ez dugu aspertzeko denborarik!

-Ze paraje natural eder ditugun Euskal Herrian gainera! Tira, Munduan beste batzuk ez dute guk dugun zortea, esate baterako Txernobilgo hondamendiak kaltetutako haurrek, ezagutzen duzue baten bat?

-Bai horixe!!! Gure etxera urtero etortzen da Misha uda pasatzera, bihurri xamarra da, lagun handiak egin gara eta primeran pasatzen dugu elkarrekin, gure Ukrainako lehengusua da!

-Hara! Bat gehiago etxerako! zeinen ongi. Familia gehiagok egin beharko lukete zuek bezala. Haur asko egongo dira beharrean eta... Chernobilen Lagunak elkarte horretan ari da buru belarri ezta?

-Haur nintzelarik entzun nuen istripu larri bat egon zela Txernobilgo zentral

nuklearrean eta hainbat lagun hil zirela.

-Bai, kutsadura handia dago oraindik ere, janarian adibidez.

-Uda Euskal Herrian pasatzeak on egingo die orduan ezta?

-Hori esaten dute gure gurasoek. Oso pozik egoten da hemen eta hemengo janaria asko gustatzen zaio, baita litxarreriak ere... jeje.

-Bihurria izango da. Ezagutzeko desiatzen nago ni ere. Kantari ezagutuko dugu?

-Bai horixe!



12 MISHA TXIKIA

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Oihane Perea Perez de Mendiola

Ahotsa: Jurgi Ekiza

Uda da
San Juan gaua ia
laster dator Euskal Herrira
Misha txikia.
Bagoaz gu
Loiura urduri zure bila
uda hau ametsetakoa
izan dadila.

Bazatoz
eskaileran behera.
Ongi etorri berriz ere
zure etxera.
Ez dakizu
zure falta izan dugula ta
jakin mila abentura
zain ditugula.

Misha laguna
Ukrainatik gurera
etorri zara
barrutik osatzera.
Airea, kresala eta
mendiak batera
motxilan sartu ta eraman
Txernobilera.

Etorri
goazen hondartzara
olatu artean saltoka
hasiko al gara?
Gaur arnasa
hartuko dugu elkarrekin,
zuk kroketarena egin arte
ondarrarekin.

Misha laguna
Ukrainatik gurera
etorri zara
barrutik osatzera.
Airea, kresala eta
mendiak batera
motxilan sartu
ta eraman Txernobilera.

Misha laguna
Ukrainatik gurera
etorri zara
barrutik osatzera.
Airea, kresala eta
mendiak batera
motxilan sartu
ta eraman Txernobilera.